

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

3/2021 kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onarpena

Udaleko Osoko Bilkurak, 2021eko azaroaren 24an egindako ohiko bilkuran, aho batez onartu zuen 3/2001 zenbakidun kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onarpena ematea.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 34. artikuluan xedatutakoaren arabera, espediente horiek hamabost eguneko epean egongo dira jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; epe horretan, interesdunek aztertu ahal izango dituzte, eta hala badagokio, egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztuko dizkiote Osoko Bilkurari.

Kreditu gehigarrien espedienteak behin betiko onartutzat joko dira epe horretan erreklamazioz aurkezten ez bada.

Horren berri izan dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Izarra, 2021eko azaroaren 24a

Alkatea

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA